

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Paxkual Zabaleta Zabaleta

*Legazpi,
Gipuzkoa
(1934-2013)*

Aurkibidea



Biografia



1934an jaio zen Brinkolako Garroetxeberri baserrian. Ama Telleriarteko Biurrainbekoa baserrikoa eta aita Garroetxeberri bertakoa zituen. Eskolan Brinkolan ibili zen 6 urterekin hasita eta ondoren Legazpiko eskolara pasa zen. 18 urterekin antzerkigintzan hasi zen Brinkolako taldean. Zenbait antzerki jendaurrean antzeztu ere egin zituen eta horietako bat errezitatu ere egiten du elkarrizketan. Baserriko bizimoduari oso lotua egon da beti eta umetatik eguraldi kontuei arreta berezia jarri izan die.

Zintak

LGA-027

- **Proiektua:** Aitor Gurrutxagaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ikastola, Haztegi
- **Data:** 2004-01-01
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Emalea:** Gurrutxaga, Aitor

LGA-041

- **Proiektua:** Legazpiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-07-06
- **Iraupena:** 107 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Garai bateko Brinkola

- **Erref:** LGA-041/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Bera umea zen garaian jaiero soinua egon ohi zen eta jendea trenez joaten zen Brinkolara. Bi taberna zeuden eta izendatu egiten ditu. Brinkolan San Agustin dute Santu eta haren inguruan entzundakoak kontatzen ditu.

2. Toki ezean garia nekez

- **Erref:** LGA-041/004
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Seme bakarra da familian. Garai hartan Brinkolan 30 bat baserri inguru ziren, denak behiak zituztenak eta labrantzatik bizi zirenak. Gariak ez zuen urik nahi izaten eta Paxkualen etxe ondoa umela zenez komeriak izaten zituzten. Urola erreka.

3. Beleen eraginez gari-artoa ereiteari utzi behar

- **Erref:** LGA-041/005
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Garia eta artoa ereiteari utzi behar izan zion, beleek artoa ondotik ateratzen zutelako. Amutxandako terrenoari Belategi izena jarri zioten garai batean.</p>

4. Zalkea, ilar beltza eta oloa

- **Erref:** LGA-041/006
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:12:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Garia eta artoa ereiteko lurra nola jorratzen zuten azaltzen du. Auzokoa etortzen zen ordainduta, lurra goldatzera. Zalkea eta ilar beltza garitan igoz gero garia erori egin ohi zen. Oloa berez jaiotzen zen gari artean eta atera egiten zuten.</p>

5. Garia eskuz jo eta dornuan garbitu

- **Erref:** LGA-041/007
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:12:14. **Bukatu:** 00:15:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garia eskuz jotzen zuten, lasta-azaoak egin eta harriaren kontra jotzen zuten. Gari-jotzeko makina auzotarren artean erositakoa zen, hauts izugarria ateratzen zuen. Tornua deiturikoari eskuz eragin eta garia garbitzen zuen.

6. Garia kutxan eta artoa ganbaran

- **Erref:** LGA-041/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:15:43. **Bukatu:** 00:17:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Garia, egurrezko kutxetan gordetzen zuten ganbaran. Gaztak ere gari artean gordetzen ziren hobeto kontserbatzeko. Artoa ganbaran uzten zen lehortzen, lokotxa sutarako erabiltzen zuten.</p>

7. Ilar beltza, alpapa, pagatxa eta ailorbea

- **Erref:** LGA-041/010
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:18:03. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Ilar beltza, alpapa eta pagatxa landatzen ereiten zituzten sorotan, ganaduarentzat egiten ziren. Behiei ailorbea ematen zitzairen eta esnari azkar sumatzen zitzaion haren gustua.</p>

8. Gari buruak jotzeko, idaurra

- **Erref:** LGA-041/011
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari buruak 4 hortzeko eskuare batekin batzen zituzten eta idaurrarekin jotzen zen. Idaurra nolakoa zen azaltzen du, etxean egiten zuten.

9. Ormakio mendiko bordan aitonarekin artzain

- **Erref:** LGA-041/012
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

10 urte zituenera arte etxean ardiak izan zituzten, aitona zena artzaina zen. Eskuz jezten ziren. Garbitasun urria izaten zen garai hartan. Ardi mutur-gorri eta mutur-beltzak. Ormakio mendian, Zegamako mugan zuten borda eta han izaten zituzten ardiak. Txilarrez egindako koltxoia eta arta-lastozko burukoa izaten zuten.

10. Bordatik etxera esne marmitak astoan hartuta

- **Erref:** LGA-041/014
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:27:36. **Bukatu:** 00:28:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Pikotxean jarrita jezten zituzten ardiak, lehenengo ontzi batera eta gero marmitetara, astoan hartuta eramaten zuten etxera.

11. San Juan ondoreneko ardi-moztea

- **Erref:** LGA-041/015
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:28:26. **Bukatu:** 00:30:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Ardi ilea mozteko guraize bereziak erabiltzen zituzten, San Juan ondorenean mozten zitzairen. Ilea sasoi hotzean moztuz gero ardia hiltzeko arriskua egoten da. Ardi-ilea traperoari saltzen zitzaion, Oñatikoak joaten ziren Brinkolara.</p>

12. Uztarria babesteko ardi-narrua gainean

- **Erref:** LGA-041/016
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:30:59. **Bukatu:** 00:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ardi-larrua idi-uztarriari jartzen zioten gainean, beroarekin ez pitzatzeko. Telleriarteko uztargilearen aipamena, bertako tabernak uztarri izena zuen. Uztarriak pago egurrez egiten zituzten.

13. Ardi eta behorak sail batetik bestera bereizteko seinaleak

- **Erref:** LGA-041/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:35:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardiek ipurdi gainean seinale bat izaten zuten beste artaldeetatik bereizteko eta belarrietan akatsa deiturikoa, ebaki bat izaten zen. Behorrei burdin guri batekin egiten zitzairen seinalea.</p>

14. Esne-biltzaileak eta etxez etxeko emakume erosleak

- **Erref:** LGA-041/018
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:35:08. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Esne-behiak izan zituzten aurrenean, emakumeak joaten zitzaizkion egunero esnea erotera, sobratzen zen esnea esne-biltzaileek eramaten zuten, haien aipamena.

15. Behi askak eta ardientzako artxarak

- **Erref:** LGA-041/020
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:36:49. **Bukatu:** 00:40:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Behi askak etxean eginak izaten ziren, porlanezkoak izaten ziren. Ardienak egurrezkoak ziren eta artxara deitzen zitzairen, aitona zenak urritzezko estakekin egiten zituen belar-onduentzat. Pentsua emateko oholezko askatxoak izaten ziren. Gatzezko harria jartzen zen zintzilik ganaduak miaztu zezan.

16. Brinkolako eskolan urritzezko makilakadak

- **Erref:** LGA-041/021
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:40:14. **Bukatu:** 00:43:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Brinkolako eskolan ibili zen sei urterekin hasita, eliza ondoan. Neska-mutilak bereizita ikasten zuten, Franco garai hartan dena zen bekatu. Maistra bertan bizi zen, gogorra zen eta zigorak jarri eta urritz makilaz nola jotzen zituzten aipatzen du. Erdaraz ikasten zuten.</p>

17. Legazpiko kolegiara berandu kromoak zirela eta

- **Erref:** LGA-041/022
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:43:41. **Bukatu:** 00:47:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Brinkolako eskola utzi ondoren, Legazpiko kolegiara joan zen ikastera. Eskolan sartu orduko meza izaten zuten eta Basaberen dendan geldituena egin eta berandu joaten ziren kromoak ikusten aritzeagatik. 6 gradu zeuden eta 4.ean utzi zuen eskola, Patrizio Etxeberriak jarritako eskola zen.</p>

18. Antzerkigintzan Brinkolako Don Miel apaizarekin

- **Erref:** LGA-041/023
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:50:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

18 urterekin antzerkigintzan hasi zen Brinkolako eskolan Don Miel apaiza eta bere arrebarekin. Antzerkigintzan hastearen zergatia aipatzen du.

19. Lehenbiziko antzerki obra ikustera amarekin Brinkolara

- **Erref:** LGA-041/024
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:50:59. **Bukatu:** 00:53:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Don Felipek eta bere ikasleek egiten zuten aurretik antzerkia eta Paxkual amarekin hura ikustera joana zen aurrez. Legazpin antzerkian aritzen zirenen aipamena. Euskaraz izaten zen eta jakineko datak izaten ziren taularatzeko. Bere lehen obra aipatzen du, jantziak Bixenta zenak egiten zizkien.

20. Lehenengo antzerki obra, 'Garbiñe'

- **Erref:** LGA-041/026
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:54:05. **Bukatu:** 00:56:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Garbiñe antzezlanaren aipamena. Antzerkiak ikusmin handia zuen garai hartan, ez zegoen ez irrati ez telebistarik, eta zinemak ere gerora egin ziren Legazpin.</p>

21. Doilorra eta beste zenbait antzezlan

- **Erref:** LGA-041/027
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:56:35. **Bukatu:** 00:58:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Ibaiondo zineman "Doilorra" obra antzeztu zuten eta Paxkualen papera zintzen azaltzen du. Errezitatu beharreko pusketaren bat ahaztuz gero don Migel apaizak esaten zien ondotik. Beste antzezlan batzuen aipamena.</p>

22. Brinkolako apaizak

- **Erref:** LGA-041/028
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:58:53. **Bukatu:** 01:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Brinkolako apaizak alde egin eta Don Migel joan arte antzerkigintza kenduta egon zen Brinkolan. Lehenengo apaizaren aipamena, Don Jose Juaristi. Paxkualek monagilo harekin ikasi zuen.

23. 'Beaiñola' antzerki-taldea

- **Erref:** LGA-041/029
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 01:01:47. **Bukatu:** 01:06:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Urtean antzerki bat egiten zuten, eta entseguetan eta paperak ikasten denbora luze egiten zuten. Beaiñola taldea zuen izena Paxkualen taldeak. Herritik kanpo ere antzezten zuten, eta autobusez joaten ziren Brinkolatik. Borondateko lana zen, eta ez zuten xoxik irabazten.</p>

24. 'Osaba' antzerki obraren pusketa bat

- **Erref:** LGA-041/032
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:07:20. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Osaba eta Doilorra antzezlanen aipamena eta antzerki obrako pusketa bat errezitatzen du.</p>

25. Politikak antzerkia desegin zuenekoa

- **Erref:** LGA-041/033
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:10:00. **Bukatu:** 01:12:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Brinkolako antzerki-taldeak egin zuen azken obran, ez zuen parte hartu. Politika zela-eta, antzerki-taldea desegin egin zen. Erlijioarekin lotutako gauzko bilerak egin ziren Larraitzen;haien aipamena.</p>

26. Tenporen pasadizoa

- **Erref:** LGA-041/037
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:16:40. **Bukatu:** 01:20:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eguraldi kontuetan zaletua da eta bere amonaren tarteko batengandik datorkio. "Miel Brinkola". Tenporen aipamena egiten du eta pasadizo bat.

27. Tenporak eta laino mota ezberdinak

- **Erref:** LGA-041/038
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:20:19. **Bukatu:** 01:23:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Tenporak noiz izaten diren aipatzen du. Lainoen norantzaren arabera antzematen du eguraldia.

28. Haize motak eta berezitasunak

- **Erref:** LGA-041/039
- **Iraupena:** 0:05:58. **Hasi:** 01:23:42. **Bukatu:** 01:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Haize mota ezberdinak eta bakoitzaren ezberdintasunak; alda-haizea, hego-haizea, ipar-haizea etab.

29. Euri motak

- **Erref:** LGA-041/040
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:29:40. **Bukatu:** 01:32:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Euri motak eta berezitasunak.

30. Urriko ilbehera eta ilberria zuhaitzak botatzeko

- **Erref:** LGA-041/041
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:32:14. **Bukatu:** 01:34:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Ilargiaren arabera botatzen zen egurra. Urriko ilbehera izaten da onena zuhaitzak botatzeko.

31. "Urriko ilberrin elurra Aizkorrin"

- **Erref:** LGA-041/042
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 01:34:57. **Bukatu:** 01:39:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Esaera zaharren aipamena egiten du.

32. Elur mota ezberdinak

- **Erref:** LGA-041/044
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:40:23. **Bukatu:** 01:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Elur mota ezberdinak, izotz beltza, txingorra, txingor xehea eta abar.

33. "San Migelen zahagik, aurretik o atzetik"

- **Erref:** LGA-041/046
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:43:56. **Bukatu:** 01:45:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

San Migeletan esan ohi den esaera baten aipamena; San Migelen Zahagiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com